



Estibalitz EZKERRA
Literatura kritikaria

Apartekotasuna (III)

Palestinari eta palestinarrei dagokienez, Alemaniak Shoah-ri eta Israeli aitorturiko apartekotasunak ondorio hilgarriak ditu. Modu sinplean esanda, ez bata ez besteek ez dute existitzeko eskubiderik. Bestela adieraztea alemaniar psikean hertsiki loturik dauden juduen sufri-mendua eta Israel ukatzearen parekoa da; funtsean, antisemitismoa aldarrikatzea da. Palestinarren zein haien alde mintzo direnak zentsuratzea eta isilaraz-

tea, hain zuzen, antisemitismoa eragozteko neurri gisa aurkezten du alemaniar estatuak.

Bizirik zein hilik, palestinar gorputzak zein gorpuak irakurtezinak dira Alemaniarentzat.

Hamasen urriaren 7ko erasoaren ostean, Israelek Gazan gaizkoaturiko sarraskia salatze eta palestinarren bizitzak defenditzeko, Shoah-ren ostean, zabalduko "inoiz ez gehiago" leloari heldu diote hainbat elkarte eta herritarrek, horien

artean sionismoa arbuiatu eta Israelgo estatuarekin kritiko diren judu alemaniarrek. "Inoiz ez gehiago" leloak zehazki zer esan nahi duen eta nor den edo izan daitekeen haren subjektu, horra arazoaren isla eta muina. Alemaniako memoria kulturaren arabera, "inoiz ez gehiago" leloak juduen eta hedaturaz Israelen ongizatea bermatzeko konpromisoa adierazten du, erasotzailea Israel bera denean ere. Baina, jakina, logika honen arabera, erasorik ez da, soilik defentsa.

Iraitz MATEO | DONOSTIA

Bernardo Atxagarekin ez du edonork gosaltzen; atzo goizean, ordea, kazetariekin batera gosalduta zuen idazleak, bere lan berrituaz mintzatzeko. "Bi anai" liburuaren edizio berritua aurkeztu zuen Erein argitaletxearekin batera, eta egungo garaira egokitutako mila aldaketa baino gehiago egin dituztela kontatu zuen. Beste aitoren bat egiteko ere baliatu zuen gosaria; Asun Garikano aurkeztu zuen, azken urteetan berak sinatutako liburuak idazten lagundu dion kidea, editoretza lanak egin dituen.

Azken urteetan behin baino gehiagotan izan du aipagai Atxagak "Bi anai" liburuari amaiera aldatuko liokeela. Liburu-aurkezpenetan *spoilerrik* ez egiten ahalegintzen dira idazleak maiz, eta kasu honetan ere amaiera zertan aldatu duen ez zuen kontatu asteasuarrak.

Argitaratu ostean idazleak «itxiztat» ematen du liburua, Garikanoren ustez, eta onartu zuen Atxagarentzat ez dela «batere gogoko lana» izan, burua jada hurrengo liburuan zuelako. «Bumeran» tankera hartu zion idazleak ariketa hori egiteari: «Oso zaila da aurrekoari aurre egitea». Baina, aldi berean, bigarren bizitza pozgarria ere badela kontatu zuen.


Mila aldaketatik gora Amaiera posible berri baten nahia, eta euskararen egoeraren aldaketa; horiek izan ziren edizio berrirako arrazoi nagusiak. Garikanok kontatu zuen hizkuntza asko aldatu dela azken berrogei urteetan; «erabiltzen ziren hitz batzuk bazterrean geratu dira, eta egun ez dira erabiltzen, lexikoa asko aldatu da». Bere ustez, hitz horiek bazterrean utzi eta erabiltzen direnak txertatu behar dira. Bat dator Atxaga, «narrazioak transparentea izan behar du, irudimenak ez du inolako trabarik behar»; eta, bere ustez,

Atxagak «aurrekoari aurre eginez» berridatzi du «Bi anai» eleberria

«Bi anai» eleberriaren edizio berritua argitaratu du Bernardo Atxagak Erein argitaletxearekin. 1992an plazaratu zen lehendabiziko alea, 2000. urtean bigarrena, eta atzo goizean aurkeztu zuten azkena; mila aldaketa baino gehiagorekin.

EDITORETZA

Autorea jarri ohi da jopuntuan literaturan, baina Atxagak kontatu zuen berarentzat «premiatzkoa» dela lankide bat izatea. Duela 30 urte ekin zioten elkarlanari: «Laguntza ez nuen itzulpenetan bakarrik behar, bakarrik ez nintzen iristen nahi nuen lekura euskaraz ere», aitortu zuen idazleak edizio lanaren garrantzia azpimarratuz.



Donostian aurkeztu du Atxagak «Bi anai» eleberri laburraren edizio gaurkotua. Maialen ANDRES | FOKU

ulertzen ez den hitz bakoitza «nabarmen geratzen da» eta «eten bat» sortzen dio irakurleari kontakizunetik ateraz. Hori gertatzea saihestu dute lan berrian. Narrazioan ere egin dituzte aldaketak, ordea, «argiago azaldu ditugu zenbait kontu, eta erritmo biziagoa eman».

Atalak bereizteko modua izan da aldaketa berrietako bat. Atal bakoitzean narratzailea aldatzen da, jatorrizko bertsioan zenbaki bidez bereizten ziren. Orain, aldiz, atal bakoitzak bere izena du, eta zein

den narratzailea jasotzen du segidan, «horrek helduleku bat ematen dio irakurleari», argitu zuten.

«Berme-puntua», Obaba Narrazioaren mamia ez da aldatu, ordea, eta Atxagak aitortu zuen bere «berme-puntua» Obabako mundua dela. Liburuaren ardatza «psikologiarik ez egotea» dela adierazi zuen, ez dagoela «lexiko freudiano-rik», eta animalien bidez kontaktatzen duela, beraz, bi anaien barne-bizitza. «Nire hipotesia da leku ruraletan ez dela egon

ez psikologiarik, ez politikarik. Barne-bizitza beste elementu batzuen bidez kontatu izan da; mamuen bidez, esaterako». Eta zailena ere horixe egin zitzaion, elementu horien bidez kontaktatzea istorioa: «Ahalegin tekniko ikaragarria da bi anaien trama kutsu psikologikorik gabe kontaktatzea».

Obaba «jasotako estereotipoen aurkako borroka» bat dela defendatu zuen atzo. Eta joera handia dagoen arren, landa eremuko zein hirietako bizilagunak estereotipo bihurtzea deitoratu zuen.